

## 2019KO URRIAREN 11KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK

**Adierazpen instituzionala, Nesken  
Nazioarteko Eguna dela eta.  
[11\11\05\00\00069]**

Onetsia.

"Legebiltzarrean euskal herritarrak ordezkatzeko ditugun parlamentarioek 2030 Agendaren Garapen Jasangarriaren 5. Helburuarekin eta 5.1 helmugarekin bat eginez, zeinak azpimarratzen baitu beharrezkoa dela mundu guztian emakume eta neskatuen aurkako diskriminazio modu guztiekin amaitzea, dei egiten dugu genero-estereotipoak deuseztatzera, zeren neskatila eta mutikoen garapenerako traba baitirra eta gizarte gisa aurrera egitea eragozten baitigute.

Eusko Legebiltzarraren iritziz, arlo honetan urratsak egin izanagatik, oraindik bide luzea dago egiteko, eta bazterkeria eta genero-estereotipoak ez dira desagertu pantailetatik, hedabide idatzietatik eta publizitatetik. Dena den, egoera hau alda daiteke, baldin eta erakunde guztiek konpromisoa hartzen badute neskek eta neskatxek babesa izan dezaten aldaketan parte hartzeko, eragina izateko, eraikitzeko eta liderrak izateko beldurrik gabe eta bereizkeriarik jasan gabe, lan egiteko neska eta mutilen historiak modu justu eta egiazkoan ordezkatzuta egon daitezen gure gizartean.

Xede hori lortzeko, 2030 Agendak dioen bezala, funtsekoa da a) teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, bereziki, informazioaren eta komunikazioen teknologiarena, emakumeen ahalduntzea sustatzeko eta b) politika zuzenak eta genero-berdintasuna sustatzeko lege aplikagarriak onestea eta indartzea, emakume eta neskatok guztien genero-berdintasuna eta ahalduntzea sustatzeko, maila guztietan. Baina, batez ere, ezinbestekoa da zenbait eremutan emakumezko erreferente handiagoak ikustaraztea, neska eta neskatxak inspiratu eta ahaldundu ditzaten.

Halaber, Eusko Legebiltzarrak onartzen du ezen, emakumeen eta neskatxek partaidetza efektiboa eta benetakoa izan dadin, beharrezkoa dela parte hartzeko eta erabakiak hartzeko espazioak sortzea, neska eta neskatxek aukera emateko berdintasunean parte hartzeko, ikusgai izateko, entzunak eta baloratuak izateko.

## ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO EL DÍA 11 DE OCTUBRE DE 2019

**Declaración institucional con ocasión del  
Día Internacional de la Niña.  
[11\11\05\00\00069]**

Aprobada.

"Las parlamentarias y los parlamentarios que representamos a la ciudadanía vasca en el Parlamento, de acuerdo con el Objetivo de Desarrollo Sostenible 5 y la meta 5.1 de la Agenda 2030 que incide en la necesidad de poner fin a todas las formas de discriminación contra todas las mujeres y las niñas en todo el mundo, hacemos un llamamiento para acabar con los estereotipos de género que suponen una barrera en el desarrollo de niños y niñas y nos impiden avanzar como sociedad.

El Parlamento Vasco considera que todavía hoy, a pesar de los avances en esta materia, queda camino por recorrer, y la discriminación y los estereotipos de género siguen presentes en las pantallas, medios impresos, y publicidad. Ahora bien, esta situación puede cambiar, siempre y cuando todas las instituciones se comprometan y las niñas y jóvenes cuenten con apoyo para participar, incidir, construir y liderar el cambio sin miedo ni discriminación para trabajar por una justa y veraz representación de las historias de niñas y niños en nuestra sociedad.

Para lograr este fin, y como apunta la Agenda 2030, es fundamental a) mejorar el uso de la tecnología instrumental, en particular la tecnología de la información y las comunicaciones, para promover el empoderamiento de la mujer y b) aprobar y fortalecer políticas acertadas y leyes aplicables para promover la igualdad entre los géneros y el empoderamiento de las mujeres y las niñas a todos los niveles. Pero, sobre todo, se hace imprescindible hacer visibles en algunos ámbitos mayores referentes mujeres que inspiren y empoderen a las niñas y jóvenes.

Asimismo, el Parlamento Vasco reconoce que, para que haya una participación efectiva y real de las mujeres y las jóvenes es necesario que se creen espacios de participación y de toma de decisiones en los que las niñas y las jóvenes puedan participar, sean visibles, escuchadas y valoradas en igualdad.





Horregatik guztiagatik, legebiltzarkideek dei egiten diegu erakunde guztiei, sektore guztiei, hedabideei, hirugarren sektoreari, gizarte zibilari eta, orokorrean, nazioarteko komunitate osoari, bultza ditzaten:

- Errespetua eta berdintasuna bezalako balioak sustatuko dituen hezkuntza, neska eta emakume gazteei aukera emango diena beren helmugak eta anbizioak lortu ahal izateko inolako bereizkeriarik gabe. Irakasten diren gaien gai-zerrendetan, irakasgai guztietan, emakume erreferenteak egon ahal izatea bermatuko duen hezkuntza.
- Identifikatzeko balioko dieten eredu bitartez, neskei txikitatik beren ahalmen guztia garatzeko aukera emango dieten eduki kultural eta mediatikoak sustatzen dituzten politikak, praktikak eta legeak.
- Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna bermatuko duten neurriak ezartzea".

Por todo ello, las parlamentarias y los parlamentarios hacemos un llamamiento a todas las instituciones, a todos los sectores, a los medios de comunicación, al tercer sector, a la sociedad civil, y a toda la comunidad internacional en su conjunto para que promuevan:

- Una educación que fomente valores como el respeto y la igualdad, que permita que las niñas y las mujeres jóvenes puedan alcanzar sus metas y ambiciones sin ningún tipo de discriminación. Una educación que garantice que en los temarios de las materias que se imparten puedan existir referentes de mujeres en las diferentes disciplinas.
- Políticas, prácticas y leyes que fomenten contenidos culturales y mediáticos que permitan que las niñas desarrollen todo su potencial desde una edad temprana a través de modelos a seguir con quienes puedan identificarse.
- La implantación de medidas que garanticen la igualdad de oportunidades de mujeres y hombres".

